

Bahea

Unai Fernandez de Betoñok Gaur 8n esanak:

DANI BLANCO



“Hirigileak dira harreman hori hain argi ikusten ez dutenak. Arraroa, kultura-ondareaz eta tokiko identitateaz azken boladan hainbeste hitz egiten duen gremio baterako. Antza, hirigile gehienentzat eraikinek eta naturak soilik osatzen dute ondarea. Hirigintza-planak gelditu edo eraldatu izan dira Igeldoko igeltxoagatik (Donostiako Ibaetako industrialdea), europar

bisoiagatik (Ondarroako Aieriko auzoa) edo paduretako ornogabeengatik (Plentziako eta Barrikako Txipioko urbanizazioa), baina *Homo vasconicus* gaixoaren habitata goitik behera desnaturalizatzeak ez du ia inor kezkatzen. Baina *Homo* (eta *Mulier*) *vasconicus* espezie setatsua, nomadak ez diren zerupeko izaki guztien moduan, lurralde jakin batean bizi da, espazio fisiko zehatz batean: Euskal Herria deitzen duten horren iparraldean, hots, ipar-urialdean. Eta, bereziki, euskararen arnasguneak diren herri txiki eta ertainetan, non euskaldunen ehunekoa %70ekoa baino handiagoa den, eta, beraz, euskara hizkuntza nagusizat jo daitekeen”.

Andres Urrutia Euskaltzainburuak Berrian esanak:

DANI BLANCO



“Egia da, hala ere, elkar hartutako euskaltzain batzuk daudela. Dimisioa elkarrekin eman dute batzuek”, galderari erantzunez:

“Hor ez daude soilik euskaltzain osoak; badaude urgazleak eta ez urgazle ez oso ez direnak. Euskaltzaindia errealitate konplexua da. 29 kide, eta bakoitza mundu bat da. Kide bakoitzak oso esanahi zabala dauka euskalgintzan, alor desberdinetako jendea daukagulako, eta alor horietan jende horiek erreferentzialak eta esanguratsuak direlako. Esfortzua egin behar dugu adostasunetara iristeko. Puntu batzuetan euskaltzain batzuk egongo dira adostuagoak, eta beste batzuetan, beste batzuk. Sinesten dut aniztasun horretan. 29 pertsona, eta iritzi esanguratsuak dituzte euskalgintzan. Ez dira edonor. Batzuetan gaitza gertatzen da. Erraztasun handirik ez du ematen, esate baterako, horrelako pertsona esanguratsuak biltzeak hileroko eta puntu batzuen gainean adostasuna lortzeak”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Euskal Herrian lan egin eta bizi

LOGIKOA DA pertsona orok bere herrian lan egin eta bizi nahi izatea. Munduan milioika pertsona eta familia dira, tamalez, emigratu behar izaten dutenak bizitzeko eta lan egiteko. Euskal Herrian gure artean bizi dira milaka etorkin. Baina hemen ere badaude pertsonak eta familiak emigratzera derrigortuak, euren herri eta eskualdeetan ez dutelako lanik aurkitzen. Krisiarekin, adibidez, 500 barakaldar joan dira herritik kanpora. Egoera hori orokorra da eta aspalditik ari da gertatzen, batez ere Euskal Herriko ekialdean, Pirinioetan. Pirinioetan 103 udalerri daude, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, Espainiako eta Frantziako estatuetakoa muga administratiboen barnean. Herriotan gero eta jende gutxiago bizi da, gero eta jende helduagoa, eta lan bila kanpora doazen gazteen exodoa etengabekoa da. Zerbitzuak (eskolak, ospitaleak...) herri horietatik urrun daude.

Halako egoera larriaren aurrean, Udalbiltzak hartutako erabakia txalotzekoa da, herri piriniar horien

garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko proiektua jarri baitu martxan, bertako jendeen parte-hartzearekin. Eragin, Elgarrekin eta Garapen Soziala izeneko programen bidez, gazteen emigrazio tasa altua murriztu eta inposaturiko mugen gaineko kolaborazioa bilatu nahi dute. Testuinguru horretan, Gaiandegia Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Behategiak egin duen lana onartu eta aintzat hartu beharra dago, baita Euskal Herriko Laborantza Ganbarak egindako ahalegina ere. Bi erakundeak eraikuntza nazionalaren sustatzaile dira eta Udalbiltzarekin elkarlanean ari dira Pirinioetako euskal herritarrek ere Euskal Herrian lan egin eta bizitzeko aukera izan dezaten. Euren lanagatik eskerrak eman behar dizkiegu.

Juan Mari Arregi

